

Teodoro Hernandorena

VIII. Ipuin Lehiaketa



ZIZURKILGO UDALA

© Zizurkilgo Udala

Lege gordailua: SS -320-2010

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza, komunikazio grafikoa

Hitzaurrea



Agur t'erdi:

Hasteko ESKERRIK BEROENAK eman nahi dizkizuet Teodoro Hernandorena VIII. Ipuin Lehiaketa hau garatzea posible egin duzuenoi. Idazleei, noski. Behin eta berriz lehiaketa honetan parte hartzen duzuela-ko. Irakasle, guraso eta lagunei, ziur bainago lanak aurkeztu dituzten idazleek zuen laguntza eta babesa izan dutela. Eta eskerrik asko ipuinak irakurri, aztertu, baloratu eta saridunak izendatu dituzuen epaimahaikideei, osatu behar izan ditugun bi epaimahaietako epaimahaikideei.

Maite Toledo eta Iñaki Zubeldia izan dira A eta B mailatako epaimahaikideak. Joseba Aukenerena eta Felipe Juaristik izan dute C, D eta E mailetakoa aukeraketa egiteko lana. Lan eskerga izan dute, zalantzarik gabe.

390 idazlek idatzitako 390 ipuin aurkeztu dituzue 2009an deitutako Teodoro Hernandorena VIII. Ipuin Lehiaketara inguruko herrietako haur, gaztetxo eta helduek. Ziur gaude ilusio handiz idatzi eta aurkeztu dituzuela ipuin hauek.


VIII. lehiaketa, beste zazpi izan dira aurretik. 2002an berria zen Kultura eta Euskara Saila udalean, eta lehiaketa hau martxan jarri zuen, arrakastarik izango zuen jakin gabe. VIII. edizioko irabazleak dira esku artean dituzunak. Arrakasta izan du, bai!

Teodoro Hernandorena bertsozale zizurkildarraren izena darama ipuin lehiaketa honek. Ahozko literaturaren eta oro har euskaren alde egin zuen lana eskertzeko modu xume bat da honako hau, omenaldi txikitzat ere har daitekeena. Bere izen ona zabaltzea lortzen badugu gure helburua ederki beteko dugu. Lehena eta oraina lotzea da gure hizkuntza eta literaturaren alde egin dezakegun ahaleginetako bat.

Lehiaketa deialdi hau urtero luzatzearekin euskal literatura lantzea da gure xede nagusia, euskaraz idatzi zein irakurtzeko zaletasuna zabaltzea. Gaur egun teknologia modernoak (txatak, e-postak, esamesak, ...) betiko idazkera zein irakurketa ordeztu omen ditu. Gazteek erabiltzen omen dituzte gehienbat. Lehiaketa honetan, aldiz, gazteak dira beraien lanak aurkezten dituztenak. Helduek ere baduzue kontatzekorik! Anima zaitezte hurrengo urteko lehiaketarako zuen istorioak idaztera!!!! Izan ere, istorioa bera da garrantzitsuena.

Liburu hau zure eskuartera iritsi bada, ez galdu aukerarik. Liburu honetan dituzu 10 irabazleak.

Ireki liburua, denbora apur bat lasai– lasai hartu eta egun irakurtzea eta idaztea gutxi batzuen eginkizun bada ere, irakurriz goza dezazun desio dizut.



Mª Angeles Lazkano Larrañaga

Zizurkilgo Alkatea

A maila

- 1go Saria: **Hitz egiten zuen patinetea**
Jorge Castellanos 9
2. Saria: **Maitasunaren hitza**
Sara Iriarte 11

B maila

- 1go Saria: **Lagun minak**
Asier Ascaray 13
2. Saria: **Oilar kantaria**
Jon Jauregi 17

C maila

- 1go Saria: **Batuketak egiten ez zekien umea**
Nagore Arin 21
2. Saria: **Ametsak bete egiten dira**
Ignacio Balerdi 25

D maila

- 1go Saria: **Hiltzailearen hilketa**
Unai Ugartemendia 29
2. Saria: **Hegan egiten duen arranoa. Inoren semea**
Unai Urkola 35

E maila

- 1go Saria: **Motel Montecarlo**
Ander Leon 47
2. Saria: **Bidaieko bakarriketak**
Oskar Otermin 53



■ A. maila • 1. saria

JORGE CASTELLANO

Hitz egiten zuen patinetea

Orain dela urte asko, herrixka txiki batean Peru izeneko mutiko bat bizi zen. Peruk 7 urte zituen eta oso bihurria zen. Peruri bere lagunekin jolastea izugarri gustatzen zitzaion, baina gehien atsegin zuena bere patinetearekin herrixkan zehar gora eta behera ibiltzea zen.

Udako goiz batean, ikastolara joan behar ez zuenez, patinetea hartu eta kalera irten zer buelta bat emateko asmoz. Han zihoan poz-pozik, baina, halako batean, harri koxkor batekin trabatu eta lurrera erori zen. Peruk belaunean min hartu zuen, baina min gehiago ematen zion patinetea nola geratu zen ikusteak. Beraz, lurretik altxatzen hasi zen baina garrasi txiki bat entzun zuen.

Hasiera batean, ez zekien garrasi txiki hura nondik zetorren, baina patinetearengana gerturatu bezain laster, garrasi egiten zuena patinetea zela ohartu zen. Peru beldurtu egin zen lehen unean, baina gero honela galdetu zion patineteari:

Nolatan hitz egin dezakezu?

– Orain dela urte batzuk kalean nengoela tximista batek jo ninduen. Egun hartatik aurrera, hitz egiteko gaitasuna daukat. –erantzun zuen patineteak goxo-goxo.

– Hori primeran dago! Horrela hemendik aurrera kalean zehar gabil-tzan bitartean hitz egiten joan gaitezke. –esan zuen Peruk poz-pozik.

Eta halaxe izan zen. Egun hartatik aurrera, Peru eta bere patinete maitea kalean zehar isildu gabe ibiltzen ziren. Eta arriskuren bat ikusten zuenean patineteak, Peruri esaten zion. Modu honetan, ez ziren eror-tzen eta ez zuten gehiago inoiz minik hartu.



■ A. maila • 2. saria

SARA IRIARTE

Maitasunaren hitza

Aspaldi-aspaldian mutil zoritxarreko bat bizi zen baserri txiki batean. Bere aita zabor-biltzailea zen eta gogor betetzen zuen bere lana. Horregatik gutxitan ikusten zuen ume zoritxarrekoak bere aita. Ume zoritxarrekoaren lagunek zirikatu egiten zuten bere aita zabor-biltzailea zelako.

Egun batean, lagunek zirikatu ondoren, ikastolatik atera eta basora joan zen negarrez. Gaixoak pena ematen zuen. Zuhaitz baten ondoan eseri zen. Negarrez ari zela maitagarri bat hurbildu zitzaion bere ondora eta esan zion:

–Kaixo! Nik Maitasunaren Hitza izena dut! Zergatik zaude zuhaitz baten ondoan negarrez?

Mutil zoritxarrekoa hasieran ikaratu egin zen. Baina gero esan zion:

–Nire lagunek ez naute gogoko! Beti zirikatu eta negarrez uzten naute nire aita zabor-biltzailea delako. Eta bakar-bakarrik nagoelako basora etorri naiz animaliekin egotera!

Maitagarriak pena hartu eta paper ziztrin bat eman zion. Paper hone-tan bere nahiak betetzeko zer egin behar zuen jartzen zuen:

Lagunek zirikatzen bazaituzte, ez egin kasurik eta berriro lagun izango zarete.

Zure aitek lan gutxiago egingo du eta egun batzuetan jai hartuko du zurekin egoteko.

Mutil zoritxarrekoa Maitasunaren Hitzari agur eta eskerrik asko esan eta poz-pozik joan zen etxera.

Hurrengo egunean mutiko zoritxarrekoa ikastolara joan eta paperean jartzen zuena egiten hasi zen. Lagunak zirikatzen hasi zirenean, berak ez zien kasurik egin. Egun horretan lagunek ez zuten gehiago zirikatu.

Umea ikastolan zegoen bitartean bere aita etxera joan eta paper ziztrina ikusi zuen lurrean. Papera hartu eta irakurri gabe zakarrontzira bota zuen.

Ume zoritxarrekoa ikastolatik etxera joan zenean, paper ziztrina bilatzen hasi zen baina ez zuen aurkitzen. Orduan basora joan zen negarez. Maitasunaren Hitza berriro azaldu zitzaion eta galdetu zion:

–Zer gertatzen zaizu ume?

Umeari beldur pixka bat ematen zion esateak, baina azkenean esan zion:

–Ez dut aurkitzen zuk emandako papera!

Maitasunaren Hitzak barkamena eskatu zion paper ziztrin bat emateagatik. Ondoren Maitasunaren Hitzak esan zion:

–Lasai! Opari bat egingo dizut! Hemendik aurrera zure bizitza hobe izango da!

Eta horrela gertatu zen: inork gehiago ez zuen zirikatu eta bere aita askotan ikusi zuen. Handik aurrera ez zen zoritxarrekoa izan, zorionekoa baizik.



■ B. maila • 1. saria

ASIER ASCARAY

Lagun minak

Bazen behin, Nueva York-en, mutiko bat Joseba izenekoa. 16 urte zituen. Bazuen, baita ere, anai bat, 14 urtekoa, Tomax izena zuena. Izen euskaldunak zituzten beraien aita eta ama Euskal Herrikoak zirelako. Lana aurkitzeko asmoz joan ziren egun batean, baina gauzak ez zitzaizkien joan beraiek uste bezain ondo. Joseba eta Tomax jaio aurretik etorri ziren Estatu Batuetara. Aitak fabrika batean egiten zuen lan; amak, berriz, garbiketako enpresa batean.

Egun lainotsu eta triste batean, auto istripu larri batez hil ziren biak etxera bidean. Beraz, Joseba eta Tomax elkarrekin bizi ziren etxetxo txiki batean, egoera berdinean zeuden beste neska-mutikoekin. Ez zuten gurasorik, ezta nork zaindu ere. Egunero zeregin desberdinak zituzten: batzuek, janaria ekartzen zuten, besteek etxea txukundu, beste batzuk ordea, nola edo hala, dirua ekartzen saiatzen ziren, lan eginez edo jende-ari zereginak egiten lagunduz.

Horietako egun batean, Joseba, Tomax eta beste bi laguni, janaria ekartzea egokitzen zitzaenez, lapurreta egitera joan ziren. Taberna bateko terrazatik pertsona batzuk utzitako janariak hartzen hasi ziren, plater

eta guzti. Ondoren, tarta bat lapurtu zioten andre bati eta, gero, jaten hasi ziren kale ezkutu batean. Jaten hasi bezain laster, polizia agertu zen kale horretan. Guztiak korrika hasi ziren eta Joseba eta Tomax txabola antzeko etxe txiki batean sartu eta ezkutatu ziren. Joseba etxea aztertzen hasi eta galdu egin zen. Tomax, berriz, Josebaren bila hasi zen. Alde batera eta bestera zebilela, akuario baten barruan zegoela ohartu zen, eta urrunean hizketa soinua entzun zuen. Isil-isilik inguratu eta han ikusi zuen Joseba, ur ertzean, orka bati hitz egiten. Orduan oihukatu zuen:

- Goazen azkar, polizia atzetik dugu!
- Bai, bai oraintxe noa –esan zuen Josebak:

Orduan biak korrika hasi ziren irteeraren bila, baina poliziak harrapatu egin zituen. Akuarioko jabearengana eraman zituzten, bertan nondik sartu ziren azalpenak emateko.

Kontatu zieten etxe batean bakarrik bizi zirela beste neska-mutiko batzuekin, denak egoera berean zeudenak, gurasorik gabe. Poliziek esan zuten ahaleginduko zirela beraiei lana bilatzen. Baina lapurretan egiteari utzi beharko ziotela, bestela kartzelan sartuko zituztela.

Handik egun batzuetara, poliziak Joseba eta Tomaxen bila joan ziren berri onak emateko. Joseba akuarioan hartu zuten lanean eta Tomax berriz taberna batean garbiketa lanak egiten. Pozik zeuden. Dirua irabaziko zuten biek eta beste lagunei ere laguntzeko aukera izango zuten.

Lehenengo egunean akuarioko jabeari galdetu zion:

- Nola izena du orkak?
- Black izena du, 8 urte ditu eta lau tona eta erdi baino gehiago pisatzen ditu –erantzun zion jabeak
- Eta 8 urte daramatza hor barruan?
- Ez, duela hilabete bat ekarri zuten hona.
- Eta egiten al dituzue emanaldiak berarekin?
- Ez, oraindik ez. Inori ez dio kasurik egiten, urduri jartzen da jendearekin.

– Baina beste animaliekin egingo dituzue emanaldiak, ezta?

– Bai, egunero.

Josebak, egunero, tartetxo bat hartzen zuen lan egin ondoren, orka ikusteko eta bere gauzak kontatzen zizkion. Bazirudien dena ulertzen ziola!

Egun batean akuarioko kristal batean zeuden graffitiak garbitzera joan zen eta Black orka inguratu zen. Harrituta geratu zen, geroz eta handiagoa zegoen!

Beste egun batean, Blacki arrainak ematera joan eta segituan ateratzen ur azalera. Black biraka hasi zen ahoarekin arrainak seinalatuz, orduan Josebak esan zion Blacki:

– Sartu ur azpira!

Eta ur azpira sartu zen. Ondoren beste agindu batzuk eman zizkion eta horiek ere bete egin zituen. Jabearengana joan zen bere aginduak betetzen zituela esateko. Berehala Joseba eta jabea orkarengana joan ziren egia ote zen ikustera.

– Eman bira –esan zion jabeak.

Blackek ez zuen agindua bete.

Segituan jakin zuten Blackek Josebaren aginduak bakarrik betetzen zituela. Hilabete pare bat aritu zen Joseba Black emanaldirako prestatzen. Iritsi zen emanaldi eguna, Blacken txanda zenean oso urduri jarri zen jende asko zegoelako eta ez zion kasurik egin Josebak emandako aginduei. Orduan jendea hasi zen esaten:

– Esan diguzuea gezurra da! Itzuli gure dirua!

Joseba korrika joan zen triste eta negarrez aldageletara. Han nagusiak esan zion:

– Lasai, ez da ezer pasatzen. Lehenengo emanaldia da eta normala da jendearekin izutzea. Hurrengo emanaldirako gauzak askoz ere hobeto ikasiko ditu eta ez da jendearen beldur izango.

– Bai, baina hurrengoan jende gutxiago etorriko da.

– Zu ez arduratu horretaz, gu gara nagusiak eta hori gure ardura da.

Jarraitu zuen prestaketarekin eta, hurrengo emanaldian, Black zoratu egin zen jendearen oihuekin buruarekin kristala jotzen hasiz. Kolpeen eraginez, barreraren burdinari tornilo bat atera zitzaion eta bertatik ura galitzen hasi zen. Jabeak berehala teknikariari deitu zion zuloa konpontzeko.

Joseba urduri zegoen eta herriko kaitik korrika joan zen, zeukan haserrearekin. Han Tomax aurkitu zuen bere lagun berriekin. Gertatutakoa kontatu zion eta anaiak lasaitzen lagundu zion.

Hurrengo goizean, gosalduta ondoren, Joseba akuariora joan zen lan egitera. Akuarioan Black orkari janaria eman behar zionez, uretako trajea jarri eta uretara sartu zen. Arrainak eman zizkion, gero igeri egin zuten biek elkarrekin, jolastu egin zuten, uretan akrobaziak egin... Dena perfektua zen! Jabea etorri zenean, Joseba Blackekin eta Black Josebarekin jolasean zebiltzala ikustean, bakarrik utzi zituen begirada triste bat boteaz.

Handik ordu erdira, Joseba uretatik atera zen eta, Blacki agur esan ondoren, etxera joan zen. Tomax oraindik ez zen etxeratu eta bitartean telebista piztu zuen. Bertan albisteak ikusten ari zela, bat batean, Black orka eta bere jabea agertu ziren. Jabeak esan zuen libre utzi beharko zuela, ez zeukalako behar adina diru akuarioan orka mantentzeko. Tximista baino azkarrago akuariora joan zen eta han ikusi zuen Black orka itsasora bota nahian. Joseba berarengana hurbildu eta esan zion negarrez:

– Agur Black, espero dut noizbait ikustea! Ez zaitut ahaztuko!

Blackek ere, Joseba ikustean, marru bat egin zuen, agur esango balu bezala. Orduan itsasoratu egin zen. Joseba etxera joan zen negarrez eta han zeuden guztiak triste jarri ziren, nahiz eta Joseba kontsolatzen ahalegindu. Egun hartatik aurrera, Josebak bere logelan Blackekin zeukan argazkia eduki zuen horman.

Azkenik gauzak ongi joan zitzaizkien bi anaiei. Josebak, lan egin ondoren, animalia prestatzaile ikasketak egin zituen eta zoo eta akuario askotan lan egin zuen. Tomax, berriz, sukaldari profesionala bihurtu zen. Gaur egun, haur behartsuei laguntza asko ematen saiatzen dira.



■ B. maila • 2. saria

JON JAUREGI

Oilar kantaria

Kukurruku!! Kaixo lagunak ni oilar kantaria naiz. Izen hau nire jabeak jarri zidan egunero esnatzen naizelako kantatzera ordu berdinean. Andoaingo baserri batean bizi naiz, Baltzuketan. Nire ustez, lumak ederrak ditut: laranjak, berdeak, beltzak, zuriak oso alaiak nire izaera bezala. Niri kalitatezko janaria gustatzen zait, ez beste janari klase batzuk bezala. Eskerrak nire jabea oso zintzoa den eta beti janari ona ematen didan, bestela horrenbeste haserretuko nintzen mokoarekin joko nukeela, eta nire mokoa oso zorrotza da! Agian odoletan utziko nuke.

Egun batean beste oilar bat erosi zuen. Esaten du oso polita dela baina niretzat oso itsusia da, eta gainera mofeta baten kiratsa dauka. Nire janaria ematen dio, eta niri sobra batzuk. Gainera lurrera erorita-koak beste oilarraren kirats berdina zuen. Oilarrak luma itsusiak zituen, grisak eta beltzak. Ezinezkoa da berari horrelako oilarrak gustatzea.

Hurrengo egunean ere lurrera bota zidan janaria. Ezin nuen gehiago, nazkatuta nengoen eta azkenean nire moko zorrotzarekin jo nuen. Pentsatu bezala odoletan utzi nuen. Aurrena janaria kendu zidan, gero nire

kaiola jo zuen, baina azkenean joan zen. Orain goseak eta egarriaz nago. Eta bitartean bestea, jan eta jan. Galdetu nion ea janari pixka bat emango zidan, baina berak esan zidan nik itsusia deitu niola eta mofeta bat bezala usaintzen zuela eta beste aldera begiratu eta jaten jarraitu zuen, harro-harro jarrita. Hurrengo egunean, bisita izan nuen. Etxeko katua zen, etxe hartan nire lagunik onena, baina berri txarrak zituen. Jabea oso petral eta jenio txarrez zebilela eta ni kazuelan sartzeko asmoen berri jakin zuen nire lagunak. Katu jaunak, nire jabeak ekarri zuenean, etxeko saguak harrapatzen zituen. Baina zahartzen ari denez, gaitasuna galdu du, eta jabea berarekin ere haserre dabil, nahiz eta katu jauna deitu. Nire irtenbidea ihes egitea zela pentsatu nuen. Baina nola? Nora? Gau hartan ez nuen begirik itxi, baina ez nion irtenbiderik ikusten.

Bat batean, hanka hotsa entzun nuen eta atea ireki zenean eta jabea ikusi, bihotza dardarka jarri zitzaidan. Eta gehiago bazterretik aizkora hartu zuenean. Lumak tente-tente jarri zitzaizkidan, trikua ematen nuen. Katua kaiolen ondoan zegoen. Orduan jabeak ostikada batez kendu eta nire kaiolako atea ireki zuen, hanketatik heldu eta azkar egur handi baten gainean jarri zuen nire lepoa, eta zera esan zidan: ilusioa egin beharko lizuke aizkora zorroztuarekin hiltzea ja,ja,ja, Baina orduan zorrotza hitzak nire mokoa gogoratu arazi zidan eta ausardiaz sekulako zatzada eman nion esku gainean. Eta libratzea lortu nuen bere eskueetatik eta, nola edo hala, batzuetan korrika eta besteetan hegan, ihes egitea lortu nuen. Aldi bat ihesean joan nintzen eta egoera zerbait lasaitu zela ikusitakoan, konturatu nintzen katuak jarraitu zidala.

– Zer egiten duzu katu jauna?

Bera ere egoera hartan etxean ondo ez zegoela erantzun zidan, ez, beti amestu zuela ihes egitea eta nire kasua ikusi zuenean jarraitzea pentsatu zuela.

– Baina orain zer egingo dugu? –galdetu nion

– Ez dakit, baina ezagutzen dut leku polit bat gu biontzat –erantzun zidan.

Harritu eta jakin-minez utzi ninduen.

– Non dago leku polit hori? – Galdetu nion.

– Jarraitu niri!

Kilometro bat egin ondoren iritsi ginen. Ez zen nik uste bezalakoa, baina nahiko polita zen. Sartu ginenean konturatu nintzen okindegia bat zela eta berehalaxe esan nion:

– Hau okindegia bat da!!!!

– Bai. Horregatik ekarri zaitut hona. Zu alarma bezala izan zaitezke eta ni sagu harrapatzaile.

Handik aurrera oso ondo bizi ziren eta gainera okindegikoak azkarra-go egiten zuten lan.



■ C. maila • 1. saria

NAGORE ARIN

Batuketak egiten ez zekien umea

Bazen behin ume bat, Mikel, zortzi urte zituen. Ez zekien batuketak egiten, baina bai kenketak egiten. Oso triste zegoen, ikastolan denek batuketak egiten zekitelako eta orain biderketak ikasten ari ziren. Berak ezin zituen biderketak ikasi, biderketetan batuketa erabiltzen zelako. Gelakoek burla egiten zioten, eta goibel zegoen, oso goibel. Ez zen batuketaren arazoa bakarrik, beste arazo bat zuen. Bere amona, amona Maria, gaizki zegoen, gaixo. Astelehenean ikastolatik atera bezain laster, Mikel futboleko entrenamendura joan zen, eta handik bueltan, etxera etorri zenean, notizi txar bat hartu zuen. Bere amona ospitalean zegoen. Eta esan zion Mikelek amari:

- Ama! Zer gertatu zaio amonari? Gaizki dago?
- Ez Mikel, lasai. Sendatzera eraman dute.
- Baina ama, noiz etorriko da?
- Sendatu bezain laster, bihotza.

Hurrengo arratsaldean, futbol entrenamendua zuen, baina ez zuen joan nahi izan. Horrean esan zion amari:

– Ama, ez dut entrenamendura joan nahi. Amonarengana joan nahi dut, bixitan.

– Ongi da, seme. –Erantzun zion amak.

Kotxea hartu eta ospitalera joan ziren ziztu-bizian, amona ikusteko irrikitan. Amonaren gela hirugarren solairuan zegoen, nekez igo zituzten eskailerak, igogailua ondatuta baitzegoen. Amonaren gelan sartu eta:

– Amona, zer moduz zaude? Ondo zaude? Ondo tratatzen zaituzte? Janari goxoa ematen dizute?

– Ai seme, honek azterketa bat ematen du! –moztu zion amak.

– Ondo nago biloba, ondo nago. Eta zu zer moduz ikastolan? Ikasi al duzu batuketak egiten?

– Ez amona, oraindik ez dut ikasi, jada ez dakit ikasiko dudarik ere!

– Bada biloba ba al dakizu nik nola ikasi nuen batuketak egiten?

– Ez.

– Ipuin baten bidez. Nahi al duzu kontatzea?

– Bai amona, kontatu mesedez.

– Ongi da, entzun arretaz eh!

Bazen behin hamabi izeneko familia bat. Oso zoriontsu ziren eta beti elkarrekin zeuden. Toki guztietara batera joaten ziren, bai parkera, bai mendira, futbol partidura eta baita erosketak egitera ere. Batek mina hartzen zuenean besteak lagundu egiten zion, baina dena ez zen dirudien bezain ederra; etsai batzuk zituzten, kenketak. Familia hau, berriz, oso aldenduta zegoen eta ez ziren oso ondo konpontzen beraien artean. Batuketak eta kenketak topatzen zirenean ez zuten elkar agur ere esaten. Egun batean, bai kenketak eta bai batuketak iragarki bat ikusi zuten, hau zioen:

“Larunbat honetan herri kirolak dira, parte hartzaileak joan izena ematera udaletxera.”

Batuketak hori ikusi zutenean izena ematera joan ziren, eta han kenketekin topatu ziren. Udaletxeko arduradunak talde oso bat hamabi pertsonen osatua egon behar zuela esan zien, eta bai batuketak eta bai kenketak lau bakarrik ziren.

Hurrengo egunean batuketak eta kenketak parkean zeuden, baina ez elkarrekin, eta bat-batean udaletxetik familia bat ateratzen ikusi zuten. Batuketak agurtzera joan eta:

- Zer gertatzen zaizue?
- Ba ezin dugula herri kirolek aurkeztu.
- Guk ere ez, eta hango familia horrek ere ez.
- Eta denok batera taldea osatzen badugu?
- Ez dakit ideia ona den, batez ere kenketentzat.
- Ba goazen galdetzerara!

Joan ziren galdetzerara, eta kenketek segituan ezezkoa esan zuten. Batuketak eta beste familiak “biderketak” triste jarri ziren. Hurrengo goizean kenketak izan ziren tinbre joka etorri zirenak, “nahi dugu, nahi dugu”, esanez. Orduan hiru familiak izena ematera joan ziren udaletxera:

- Izena eman nahi dugu.
- Bale, taldearen izena mesedez.
- Izena? Izena behar da ala?
- Bai noski.
- Hiru familiak izena erabakitzen hasi eta:
- Matematika, matematika da gure taldearen izena.

Gustora atera ziren udaletxetik baina herri kirolak gainean zituzten, bi egunetara ziren. Momentu horretan bertan entrenatzen hasi ziren,

bakoitzak zer kirol egingo zuen antolatzen. Iritsi zen herri kirolen eguna eta ...

– Amona, amona. Zer egin zuten irabazi ala galdu?

– Nik hori ez dakit baina badakit gauza bat, ea zuk dakizun.

– Herri kiroleko talde bat 12 pertsonakoa bazen eta hiru familia bazeuden, familia bakoitza zenbat kidekoa zen?

– Lau.

– Eta begira Mikel, zuk Mikel izena duzun bezala batuketako familia-ko aitak 6 izena zuen, amak 4, ume batek 1 eta beste umeak ere 1. Orduan zergatik izena zuen batuketen familiak 12?

– Badakit amona, badakit. Aita, ama eta bi umeen izenekin 12 osatzen delako.


– Oso ondo Mikel, nik horrela ikasi nuen, eta orain zuk ere bai.

– Bueno Mikel etxera joan beharko dugu. –esan zion amak.

– Bai, amona agur, –eta etxera joan ziren.

Hurrengo goizean, Mikel pozik zegoen, ostirala baizen, eta futbol entrenamendutik bueltan, amona ikusi zuen. Baina ez ospitalean, etxean!

Hala bazan eta ez bazan sartu dadila kalabazan eta atera dadila Billabonako plazan.



■ C. maila • 2. saria

IGNACIO BALERDI

Ametsak bete egiten dira

Bazen behin mutiko bat 14 urte zituen eta Pablo izenekoa.

Gurasorik gabe zegoen, hau da, hilda zeuden gurasoak.

Berak futbola maite zuen. Nahiz eta egunero futbolean ibili eskolako notak oso onak zituen, saiatzen zen eta.

Bera futboleko ekipo bateko partaide zen, Athletikekoa.

Ingalaterrako ekipo batean egon nahi zuen, bere ametsa hura zen. Ingalaterrako ekipo hori Newcastle United zen.

Pablok egunero errezatzen zuen bere gurasoak ea itzuliko ziren. Baina bazekien ez zirela bueltatuko.

Egun batean Ingalaterrako ekipoko begiratzaila etorri zitzaien eta esan zion ea nola izena zuten gurasoak eta tamalez Pabloren aurpegia ikusi eta barkamena eskatu zion. Bat-batean esan zion gizonak.

– Pablo, zu lasai egon, zure gurasoak bueltatuko dira eta.

- Nola? Non daude ba?
- Oso urruti, zuk uste duzun baino urrutiago.
- Eta noizbait bueltatuko dira?
- Ez dakit –erantzun zion gizonak.

Hurrengo egunean berriro ere elkartu ziren eta gizonak esan zion.

- Nahi al duzu Newcastle-en probak egin?

Mutikoak baiezkua erantzun zion.

- Orduan bihar 10:00-etan futbol zelaian –esan zion gizonak.

Hurrengo eguneko 10:00ak ziren eta Pablo hortxe zegoen, jantzita, zain.

Entrenamendua hasi zen eta berak baloia hartzen zuen bakoitzean jokaldi ona egiten zuen. Orduan entrenatzaileak esan zion ea nahi zuen beraiekin jolastu eta berak baiezkua bota zuen.

Hurrengo egunean final bat jokatzeko ari zen bera baino 3 urte handiagoekin.

Pablok 10 minutu jolastu eta garaipenaren gola sartu zuen.

Hurrengo partiduan zati bat jokatu eta bi gol sartu zituen eta hurrengo partiduan 4 gol. Orduan ekipo gehiagotatik deitzen hasi ziren eta berak ezezkoa esaten zuen.

Sartzen zituen golak gurasoei eskaintzen zizkien.

Bere bizitzako momentu hoberenetakoak ziren egun haiek.

Egun batean esan zion sendagileari.

– Nahi duzun diru guztia ordainduko nuke nire gurasoei bihotz berri bat jartzeko gai izango bazina.

- Ongi da.

- Seguru zaude?
- Noski –esan zuen Pablok.

Elkarizketa horren ondoren biak geratu ziren gorputzaren bila joateko.

Bihotz berriak jartzea oso zaila izan zen eta azkenean lortu zuten, baina amarena bakarrik egin zuten ez zutelako denborarik. Aurrerago aitarekin gauza bera egitea lortu zuten. Gurasoak ikusi eta negarrez hasi zen; bere gurasoak bazekiten Pablo zein zen. Eta hortik aurrera betirako zoriontsu izan ziren.

Bere gurasoak partidu guztietara joaten ziren oso pozik.

Gol guztiak sartu eta gurasoei eskaintzen zizkien.

Urte hartan pitxitxia izan zen.

Pablok tatuaje bat zuen eta hau zion: “ametsak egi bihurtzen dira” eta egia da.


Bere gurasoei kontatu zien beraiengatik egin zuen guztia eta gurasoak asko poztu ziren.

Esaten zuenez ikasketak zailagoak ziren Ingalaterran. Baina kurtsoak pasatzen zituen.

Urteak pasa ahala debutatzeko eguna iritsi zen, hau da, lehenengo mailan jolasteko garaia iritsi zen eta 2 gol sartu zituen. Horietako bat sendagileari eskaini zion bere gurasoengatik egin zuenagatik eta beste beti bezala bere gurasoei.

Hurrengo egunean esnatu eta, bere urteak zirenez, opari eder bat egin zioten. Urte osoan lehenengo ekipoarekin jolastu zuen. Berari poz ikaragarria eman zion hori entzundakoan eta Ingalaterra osoan ospetsuenetakoa zen. Asko maite zuten hango jendeak eta ia Ingalaterra osoa ekipo honetakoa zen.

Hortik aurrera ekipo hortakoak pozik zeuden zeren eta inoiz ez zuten hanbeste trofeo irabazi.



■ D. maila • 1. saria

UNAI UGARTEMENDIA

Hiltzailearen hilketa

Kaixo!

Jon Tyson dut izena eta nire istorioa kontatu nahi dizuet:

1980a zen. Ni, nire seme eta nire emaztearekin bizi nintzen Austria-ko herri batean, Karnten izenekoa. Gure etxea izugarri handia zen: lau pisukoa, garajea, ferrari gorri bat ... Horrelako gauzak pertsona aberats batek bakarrik lor ditzake, baina ez da nire kasua, nire aita baita gure familiako aberatsa. Mundu guztian ezagutzen den banku bateko nagusia da eta niri eta nire anaiari kapritxo guztiak ematen zizkigun. Orduan ez nekien non bizi zen, baina ikusiko banu segituan ezagutuko nituzke nire aita eta ama. Aita batez ere, bere bibote handia eta ilerik gabe geratzen ari den burusoil hori. Eta ama berriz bere ile hori eta begi urdinengatik. Deskripzioekin hasi naizenez, nire anaia deskribatuko dut: oso altua da, ile horia, begi urdinak eta oso kirolaria. Egia esan, formula 3an ibiltzen da eta hor ere lehenengotakoa izan ohi da eta Toni Tyson izena du. Ni ere bere oso antzekoa naiz, pixka bat baxuagoa baina hori urteengatik izango da; nik 20 urte ditut eta berak 27 urte.

Behin karta bat jaso nuen. Nire aita eta amarena zen. Parisen egingo zen Beatlesen kontzerturako hiru sarrera zeuden eta baita hegazkine-rako sarrerek ere. Baina ez zegoen testu idatzirik. Oso arraroa iruditu zitzaidan baina momentuko emozioarengatik edo, maletak egiten hasi ginen segituan. Hegazkin pribatu bat hartu genuen Parisko bidean. Han zeuden nire anaia eta nire aita-amak. Denok agurtu ondoren beste gauza arraro bat gertatu zen: hoteleko sarrerarik gabe geundenez taxian joan behar izan genuen gertuen zegoen 5 izarreko hotelera. Taxistari hori esan genionean, zein abizen genuen galdetu zigun eta guk harriturik erantzun ondoren, algaraka hasi zen eta 4 izarreko hotel batean utzi gintuen. Alde handirik ez zegoenez bertan geratu ginen, San Regis izena zuen eta EIFFEL dorrearen inguruan zegoen. Sartu ginenean gu denontzako gelak hartuta zeuden, baina denak gela desberdinetan, hori izan zen arraroena. Hori ere azkenean onartu egin genuen denok aurpegi arraroekin begiratzen bagenuen ere. Kontzerturako 3 aste geratzen zirenez Paris guztia aztertzea erabaki genuen.

Lehenengo egunean dena planeatzea erabaki genuen eta azkenean ez genuen ezer bisitatu. Bigarren egunean Eiffel dorrera igo ginen eta bertan zegoen kristal batean zulo izugarri bat zegoen. Nire semeak bertatik begiratu nahi zuen eta tamalez... aurreraka estropuz eginda erori egin zen nik ezer egin ahal izan aurretik. Bertako poliziek ez zuten ezer ere ikertu eta aste beteko dolua izan genuen. Parisen bertan lurperatu genuen. Bakoitza bere etxera itzultzea erabaki genuen, baina ezin izan genuen aeroportuak su hartu baitzuen. Eta hotelean egon ginen 3 egun, eta 4. eguneko gauean buila batzuk entzun nituen nire ondoko gelan, hau da, nire amaren gelan. Korrika joan ginen baina ez zegoen inor. Poliziari deitzea pentsatu genuen baina ez zen desagertzen bakarra izan, aita ere desagertu baitzen.

Dei bat jaso genuen. Ama zegoen beste aldean eta gauza bakarra esan zigun:

– Alde Parisetik.

Eta eseki egin zuen. Ez genion kasurik egin eta poliziari deitu genion. Aste betean ez genuen biez ezer jakin, baina orduan beste dei bat jaso genuen poliziaren aldetik. Gure ama aurkitu zuten kale estu batean

ahorkaturik eta biluzik. Aita ere aurkitu zuten kale batean lurrean etzanda, ...etxe batetik bota baitzuten edo bestela suizidatu egin zen.

Dena azkarregi gertatu zen poliziari galderarik egiteko. Nik eta nire anaiak dena aztertzea erabaki genuen poliziak egiten duena baina askoz ere zehatzago. Lehenik eta behin nire semearena aztertu genuen. Gauza bat zegoen lehen ikusi ez nuena: erori zen lekuan ez zegoen odol tanto bakarra ere. Gauza bakarra buruan zuen odol tanta zen. Oso harriturik geratu ginen nire anaia eta ni. Eta ama eta aitarena-ekin jarraitu genuen, berdintasunen bat bilatzeko. Amarena aitarena baino askoz ere zailagoa egin zitzaigun analizatzea, baina egin beharra genuen eta pista gehiagoren bila aritu ginen. Hor ere gauza arraro bat zegoen: kasu honetan, berriz, besoetan zituen hozkadak ziren, beso bakoitzean bi. Aitarenarekin jarraitu genuen, poliziak esan zigunez aita ama baino lehenago hil zen. Orduan, berak ezin zuen hiltzailea izan. Bere kasua zen denetan arraroena, bere buruaz beste egitean aurreraka bota zen baina bertan ere ez zegoen odol tantorik. Eta eskuetan labana batekin testua idatzita zegoen eta honako hau esaten zuen :

Ez du bere buruaz beste
Egin nik hil dut
Ez dut nire izena jarriko
Baina esaterik daukadana
Da Parisetik oso urrun nagoela

Eta beste eskuan honako hau :

Aurkitu nahi banauzue
Italiatik hasi beharko
Zenukete
Arrivederci

Gu, intrigarekin, gertuen zegoen aeroportutik abiatu eta Romarako bidea hartu genuen. Iritsi ginenean, harrigarria bada ere, txakur bat etorri zitzaigun gutun bat bizkarrean zeramala. Ingurura begiratzean, per-

tsona bat ikusi nuen burua estalirik zeramala. Ukalondoarekin jo eta gero nire anaiari behatzarekin erakutsi nion non zegoen zehazki. Gu ikusi gintuenean korrika alde egin zuen, baina hegazkinetik ateratzen ari zen jendearen ondorioz ezin izan genion jarraitu.

Hostal bat hartu genuen eta segituan karta irakurtzen hasi ginen. Bertan honako hau jartzen zuen:

Joan zaitezte Coliseoaren parera
Hirurok bakean hitz egin dezagun.

Plan bat pentsatu behar genuen tipo hori ez ondo ateratzeko Coliseotik. Azkenean honako hau pentsatu genuen gau guztia iraun ondoren: nik berarekin hitz egingo nuen eta nire anaiak atzetik eraso egingo zion.


Iritsi zen erasoaren eguna eta inor ere ez zen agertzen. Bat-batean ziztada bat sentitu nuen eskuineko hankan eta odol jario bat zerion nire hankari. Kontzientzia galdu baino lehen anaiari begiratu nion eta bera ere lurrean etzanda zegoen. Ondoren ospitale batean esnatu nintzen eta hanka eskaiolarekin estalia nuen. Medikua etorri zenean hankan tiro bat eman zidatela esan zidan eta bi hilabetea ibili ahal izango nuela. Nire anaiarengatik galdetu nion, nirearekin bukatu baino lehengo. Bera ni baino okerrago zegoen berari tripan eman baitzioten tiroa. Berak hiru hilabete behar zituen ospitaletik ateratzeko. Medikua azkenik izenik gabeko karta bat jaso nuela esan zidan karta eskuetara emanetz, eta segituan irakurtzen hasi nintzen. Hau esaten zuen:

Tontoa naizela uste al duzue?
Ikusi dut zer egiteko asmoa zenuten
Eta horregatik ez naiz azaldu.
Beno txintxo naizenez beste aukera bat
Emango dizuet eta ni joango naiz
Ospitalera.

Harriturik geratu nintzen eta galdera ugari etortzen zitzaizkigun burura. Adibidez: zer lortzen zuen ospitalera etorrira? Nirekin zer egiteko asmoa zuen? Nire anaia indargabetuari zerbait egiteko asmorik ba al zuen?

Galdera horiek nire buruari formulatzen ari nintzela loak hartu ninduen. Esnatzean muletak hartu eta ahal nuen eta azkarren nire anaia-
ren gelara joan nintzen eta gizon bat ikusi nuen pistola batekin buruari
apuntatzen, dardarka eta negarrez. Nuen haserrearen ondorioz edo,
lepotik heldu eta hil egin nuen.

Kartzelara eraman ninduten 3 urterako eta inoiz ez genuen jakin nola
hil zituen nire familiako partaideak.



■ D. maila • 2. saria

UNAI URKOLA

Hegan egiten duen arranoa. Inoren semea

1. KAPITULUA

**“Batzuk mila kilometrora
bihotzetik gertu alegia
beste batzuk bertan bizita
horren urrun...”**

Berri Txarrak – Izena, Ezina, Izana

Altair, 13 urteko gazte bat zen. Estaturaz ez zen oso handia baina indartsua zen egunero lanean ibiltzearen ondorioz. Bera ez zen bere aita bezalakoa, ezta Jerusalem inguru hartako jendea bezalakoa ere. Bere azala zuriagoa zen, ile horia zuen eta begi urdinak, bertako biztanleek azalez beltzagoak eta ile beltzarana zuten bitartean.

Bere bizitza osoan ez zen inoiz bere etxe ingurutik irten, bere aitarantzako lanean jardun behar zuelako eta, noski, ez zituen inoiz ikasketak izan. Baina garai hartan ez zen gauza arraroa, nobleziakoek bakarrik baitzuten pribilegio hori.

– Kaka zaharra! –oihukatu zuen Altairrek, berandu esnatu zela ohar-tzean. –Dagoeneko Eguzkia atera da eta ez naiz lanean hasi! Aita lo hartu dudala ohartzen bada nireak egin du!

Altair oso mutil langilea zen, ez zuen beste erremediorik, beti esnatu behar zuen goizero bere aita agindutako lanak betetzeko. Beraz, ahal zuen azkarren jaiki eta jantzi zen, bazekielako bere aita esnatzerako animaliei jana eman ez bazien eta ura ekarri ez bazuen arazoak edukiko zituela.

Beraz, animaliei ahal zuen azkarren jana eman eta ur bila abiatu zen putzura.

Putzua urruti zegoen, baina egunero egin behar zuen ibilbide bat zen eta dagoeneko ohituta zegoen hainbeste kilometro egitera. Baina egun hartan berandu zebilen eta azkar joan beharra zuen, laster bere aita esnatuko baitzen.

- Berandu zatoz! –oihukatu zion aita, iristean.
- Barkatu iezadazu mese...
- Ixo! –eta zaplazteko batez lurrera bota zuen Altair.

Altairren aita gizon txikia eta mehea zen, Altairrek erraz garaituko luke borroka batean, mehea egon arren indartsua zelako. Baina ez zion inoiz emandako kolperik bueltatzen.

– Gaur, –jarraitu zuen aita esaten– jan gabe utziko zaitut, ikas dezazu!

Eta Altairrek kexarik jarri gabe lanean jarraitu zuen.

Aitak jan gabe esan zuen, hori baitzen ematen zion gauza bakarra, eguerdia baino lehentxeago ogi pixka bat eta berak gosaldutakoaren soberakin batzuk. Etxean sartzen ere ia ez zion uzten, jatekoa presta ziezaion soilik.

Altair animaliekin batera bizi zen etxearen atzealdean zegoen txabola batean. Berarentzat txoko bat zuen, eta bertan lastoz eginiko ohe bat eta zuen arropa bakarra gordetzeko kutxa zahar bat. Txabolaren beste zatia, bere aitaren zaldia eta oilo gutxi batzuk osatzen zuten. Txabolaren inguruan barazkiak landatzeko lurrak zeuden eta hortik 200 metro ingurura erreka txiki bat. Bertako ura ez zen edangarria baina landareak ureztatzeko erabili zitekeen.

Altair barazkiak ureztatzen ari zela hurbildu zitzaion aita bere zaldia-
ren gainean, orga txiki bat atzean lotuta zuela.

– Jarrai ezazu lanean, ni merkatura noa.

Altairren aita bere semearengandik ateratako etekinak merkatuetan saltzetik bizi zen.

– Eta bizkor ibili, badakizu eta zer gertatuko zaizun zure zereginak bete ez badituzu ni bueltatzerako.

– Bai aita, zure aginduetara. –Altairrek horrela hitz egiten zion, txikitatik irakatsi zion bere jabea bezala tratatzen, bere aitarentzako bera esklabo bat baitzen.

Gau hura ez zen besteak bezalakoa izan. Altair labore batzuk betetzen ari zen gizon armatu bat arropa oso dotoreekin zaldi baten gainean iritsi zenean.

– Non da etxe honetako jabea? –galdetu zion Altairri

– Barruan da, jauna.

– Esan iezaiozu ateratzeko. Bizkor! –gizon misteriotsuak oso haserre zirudien.

Altair ahalik eta azkarren joan zen bere aitari deitzera; ez zuen gizon hura haserrarazi nahi.

– Aita, barka iezazkidazu eragozpenak, baina gizon bat dago etxe aurrean zure galdezka.

– Esaiozu oraintxe noala.

Altair etxetik atera zenean dagoeneko gizona ez zegoen bere zaldia-
ren gainean. Zutik zegoen itxaroten, etxe aurreko baratze bati begira.

– Jauna, etxeko nagusia oraintxe etorriko da.

– Ongi da.

Altair txunditurik zegoen. Nor ote zen gizon hori? galdetzen zion
bere buruari. Bere janzkera ikusgarria zen, bota handi batzuk, arropa
ederra armadura batzuez estalirik eta gerriaren ezkerrean espata bat
zintzilik. Espatak behin aitarekin herrira joan zenean ikusi zizkien guar-
dei, baina inori gehiago ez.

Momentu hartan atera zen Altairren aita etxetik. Altairrek bere aita-
ren aurpegian aldaketa bat sumatu zuen honek gizon misterio-tsua ikusi
zuenean. Inoiz ez zion begirada hori ikusi: beldurra zen.

– Talal Al-Hakim, non da nire dirua? –galdetu zuen gizon misterio-
tsuak.

– Sentitzen dut, baina ez dut dirurik. –esan zuen ikaraturik Altairren
aitak.

– Ba orduan Alaren izenean hilko zaitut! –garrasi egin zuen gizonak
espata atereaz eta, segituan, Talalen urdailean sartuz.

Altairren aita hilik erori zen lurrera.

– Aitatzat zenuen zerri honek zor zidan dirua hartzera noa etxe barru-
ra. Ateratzen naizenerako hemen bazaude zu ere hilko zaitut. –esan
zion Altairri, ordura arte mugi ezinik egon zena, beldurraren beldurrez.

Entzun eta segituan irten zen lasterka aitaren zaldia aurkitzen zen
txabolarantz, nahiz eta oso ondo ez zekien zaldiz ibiltzen, zaldiz alde
egitea otu zitzaion.

Berdin zitzaion zein norabide hartu. Bera zuzen joan zen hiri erraldoi
batera iritsi arte. Sinesgarria. Bazekien etxetik ekialdera etxe batzuk eta
herri txiki bat zeudela, baina ez zen inoiz mendebaldera joan eta ez
zekien horrelako hiririk existitzea posible zenik. Hiri hura Jerusalem zen.

Altairrek zaldia geldiarazi zuen Jerusalem inguruan zegoen lautada batean. Ez zekien zer egin, ez zekien ezer munduari buruz, hirian sartzea arriskutsua bazen? Edo agian kanpoan geratzea arriskutsuagoa zen?

Gaua iristear zegoen eta Altairri toki horrek nahiko beldur ematen zion dagoeneko, beraz sartzea ideiarik hoberena iruditu zitzaion.

Hurbildu zen Jerusalemera eta harriturik geratu zen ateen inguruan zebilen jende mordoaz. Denek begiratzen zioten. Nolatan zen posible ume bat zaldiz eta bakarrik?

– Ikusiko duzu zure jabea zaldia lapurtu diozula ohartzen denean!
–esan zion batek.

– Ez diot inori lapurtu. Nirea da.

– Ume mukitsua! –gizonak zaplazteko bat eman zion. –Ea ikasten duzun helduak errespetatzen.

– Utz ezazu bakean!– oihukatu zion bizar zuriko gizon batek. Eta hala egin zuen Altair jo zuen gizonak. –Ondo al zaude? – aldetu zion Altairri.

– Bai jauna.

– Nora zoaz? Galdu egin al zara?

– Barrura noa, ihes egiten ari naiz. –bazekien agian hobe zela egia ez esatea baina gizon hori besteak bezalakoa ez zen, beraz fio zen.

– Gaixoa, zatoz nirekin, nire etxean egin dezakezu lo.

Altair gizon harekin joan zen, baina ez ziren hiri barrenera sartu, bertatik kilometro batzuetara aurkitzen zen eraikin harresidun batera joan ziren.

Gizonak Altairri logela bat utzi eta afaria ere eman zion.

– Ni Al-Mualin nauzu, Maysaf gazteluko jabea. Nor zara zu? –galde-
tu zion gizonak.

– Altair.

– Altair soilik? Ez al duzu zure gurasoen abizenik?

– Ez, ez dut gurasorik.

– Gaixoa, hemendik aurrera Altair Ibn La-Ahad izango da zure izena.
(arabieraz: hegan egiten duen arranoa, inoren semea)

2. KAPITULUA

**“Hitzen munduan mugitzen gara aske izan nahian
kaiolan libre garela ezin onartuz.”**

Boikot-Stop Censura

Jada hamar urte pasa ziren Altairren aitaren heriotza gertatu zenetik.

Altair logelako ohean etzanda zegoen, Al- Mualin sartu zenean.

– Gaur 10 urte bete dira gaztelu honetara iritsi zinenetik

– Oroitzen naiz maisu.

– Hamar urte hauetan, izan dudak ikaslerik hoberena izan zara eta uste dut iritsi dela garaia. 3.mailako justizialari izendatuko zaitut.

Hirugarren mailako justizialari, hori zen gazteluko kargu garrantzitsuena, erregearen atzetik noski.

Gaztelu hau ez zen gaztelu normal bat. Hemen kredo bat zegoen, sinesmen bat: gizartea hobe izan zedin gaiztoak akabatzea. Eta gazteluko denek sinesten zuten horretan.

– Niretzat ohore bat da maisu. – esan zion Altairrek beti bezain serio.

– Dakizun bezala kargu hau ez diot edonori ematen, gutxi batzuk zarete hirugarren mailara iristen zaretenak, eta beraz orain izango dituzun zereginak garrantzi handiagokoak izango dira. Ziur nago bete ditzakezula.

– Ez dizut huts egingo.

– Presta zaitez, egiteko berri bat duzu. Arma berri batzuk dituzu armairuan, prest zaudenean etorri liburutegira, bertan egongo nahiz.

Altairrek armairua ireki zuen, lehenik tunika zuri bat jantzi zuen, Jerusalemgo monjeek erabiltzen zutenaren antzekoa, baina hankatan motzagoa; gerrikoa, tunikaren gainetik, gero eskularruak jantzi zituen, biak ez ziren berdinak, eskuinekoa eskularru normal bat zen baina besteak ganibet* txiki bat zuen eskumuturrean gorderik, mekanismo berezi baten bidez hatzarekin klik egitean irteten zena. Ondoren botak jantzi zituen, agilidadez ibiltzeko oso aproposak. Armak ere hartu zituen, balezta* bat geziekin bizkarrean, daga txiki batzuk gorputzeko atal desberdinetan gorderik eta espata bat, hiltzeko arma bikaina.

(1* ganibet = cuchilla 2* balezta = ballesta)

Altair liburutegira joan zen Al-Mualinek agindu bezala. Bertan aurkitzen zen liburu artean luma batez pergamino batean idazten. Segundo batzuk iraun ziren Altair bertan zela ohartu zen arte.

- Maisu, hemen nauzu.
- Altair, ba al dakizu nor den Abul Nuqoud?
- Damaskoko gizonik aberatsena dela entzun nuen behin eta errege merkataria izenez ezagutzen dutela denek.
- Halaxe da, baina ez zizuten esango nondik lortu duen diru guzti hura, ez da?
- Ez maisu.
- Merkataritzaren bidez, baina gutxik dakigu merkataritzarako produktuak artisau, abeltzain eta nekazariei osten dizkiela.
- Abul hiltzea al da nire helburua?
- Bai. Nire espioietako batek Jerusalemera tratu batzuk egitera etorri dela jakinarazi dit, berarekin Jerusalemgo merkatuan elkartuko zara gaur eta Abulen kokapena jakinaraziko dizu. –eta esaldia amaitzean, luma zuri bat eman zion Altairri.
- Zure desirak bete daitezela. –esanez luma gerrikoan gorde zuen Altairrek eta liburutegitik atera zen.

Lumak bazuen bere esanahia, luma hartan Abulen odola ekarri behar zuen, betetako lanaren adierazgarri.

Altair zaldiz segituan iritsi zen Jerusalemgo ateetara. Oraindik oroitzen zen duela hamar urte bertan gertatutakoaz eta amorrua ematen zion, baina bazekien jo zion gizon horri esker zegoela orain dagoen lekuan.

Zaldia kanpoan utzi zuen, legeek agintzen zuten bezala eta barnera sartu zen monje plantak eginez. Arriskutsua izan zitekeen ateetan kokatutako soldadu batek ezagutzen bazuen.

Kaleetan barrena abiatu zen. Egoera normaletan teilatuetara igoko zen eta bertan jauzien bidez iritsi, baina gaur ez zuen arreta erakarri nahi.

Plazara iritsi zenean, zarata asko handitu zen. Merkatariek oihuka egiten zuten publizitatea eta erosleak ere ez ziren oso isilak.

Plazatik itzuli batzuk eman ondoren topatu zen espioiarekin.

- Ibn La-Ahad jauna, Absterg nauzu, 1. mailako justizialaria.
- Altair deitu nazazu. Uste dut niretzat informazioa duzula.
- Bai Altair, zera da...
- Goazen leku seguruago batera, bertan esango didazu.
- Zuk nahi bezala.

Altair eta Absterg kale batzuk urrundu ziren plazatik eta taberna batean sartu ziren. Tabernan ez zegoen jende asko, mozkor batzuk eta hizketan jardun zuten gizonezko batzuk soilik. Altair eta Absterg atzealdean eseri ziren.

- Badakizu non dagoen Abul?
- Egia esan ez, baina badakit nork dakien.
- Nork?
- Gabriel izeneko predikatzailer batek.

- Non aurki dezaket?
- Ziurrenik plazan egongo da Jainkoaren hitza predikatzen.
- Eta ez didazu lehenago esan!
- Sentitzen dut Alt...

Baina Altair dagoeneko tabernatik kanpo zegoen.

Plazara itzuli zen. Segituan aurkitu zuen Gabriel, Abstergek esan bezala predikatzen, eta hurbildu egin zitzaion.

– Aizu, zurekin hitz egin behar dut. –moztu zuen Altairrek, Gabriel predikatzen ari baitzen.

– Sentitzen dut, baina ezin dut.

– Uste dut ahal duzula. –esan zion Altairrek eskularruko ganibeta erakutsiz.

Gabriel ohartu zen ganibetaz eta kale batera sartu ziren.

– Non dago Abul Nuqoud?

– Ez dakit.

– Berriro errepikatuko dizut. Non dago Abul Nuqoud?

– Egia diotsut ez dakit! –Gabriel oso beldurtuta zegoen.

Altairrek ukabil batez lurrera bota zuen, jaso eta eskua lepoan jarri zion.

– Non dagoen esaten ez badidazu nire ganibetarekin akabatuko zaitut.

– Ongi da, ongi da! Esango dizut. Abul Nuqoud Naplouseko jauregian dago.

– Plazer bat izan da zurekin mintzatzea. –esan zuen Altairrek, eta segituan jauzi batez balkoi batera igo zen eta bertatik teilatura.

Jauzien bidez, Abstergekin egon zen tabernara itzuli zen. Bertan jarraitzen zuen mutil gazteak.

– Non dago Naplouseko jauregia? –galdetu zion Altairrek agurrik gabe.

– Badakit non dagoen eta eraman zaitzaket.

– Ongi da, gaur gauean bertara eramango nauzu.

– Jauregi hori oso ondo dago babesturik. –ohartarazi zuen Abstergek.

– Eta zer?

Gaua zen eta Altair eta Absterg hesiaren ondoan zeuden. Naplouseko jauregia hesitua zegoen, eta karratu itxurako hesi horren erpinetan dorretxeak zeuden zaintzarako.

Altair eta Absterg dorretxeetariko batera igo ziren. Eraikinetara igozteko trebetasun ikaragarria zuten.

– Zer egiten duzue hemen? –oihukatu zien soldadu batek ezpata atereaz.

Altairrek ezpata atera beharrik ez zuen izan. Daga bat gerrikotik atera eta lepora jaurti zion arrakasta handiz. Orduan soldaduekin aurkitzen zen beste soldadua ezpataz Absterg mintzen saiatu zen, baina mutikoak saihestu egin zuen eta Altairrek ezpata urdailean sartu zion.

– Erraz. –esan zuen Altairrek. –Oso ondo mugitzen zara hain gaztea izateko. Zenbat urte dituzu?

– 16

– Nik hasi nintzenean 14 nituen. –esan zuen Altairrek iseka modura.

Bertatik jauregia ikusten zen. Bi solairu zituen: lehenengoa laukia zen, hesiaren forma berdinarekin, baina bigarren solairua txikiagoa zen eta kupula itxura zuen, hau da, zirkularra zen.

– Lepoa jokatuko nuke Abulen logela bigarren solairuan dagoela.

– Nolatan dakizu? –galdetu zuen Abstergek.

– Intuizioa. –esan zuen Altairrek umore puntu batekin.

– Eta nolatan espero duzu bertara iristea?

Erantzun gabe Altairrek dorrean zegoen soka bat hartu zuen, gezi bati lortu eta baleztaaz jaurti zuen. Punteria bikaina zuen eta kupulako teilatuan sartu zuen gezia.

– Zuk, dorrea zaindu; ni soka honen bitartez kupulara iristen saiaturko naiz. –esan zuen, dorreko balkoiko barandara sokaren beste muturra lotuz.

– Eta nola nahi duzu zaintzea?

– Hartu nire balezta. –esan zion Altairrek balezta emanaz. –ikusten banaute geziak jaurtiko dizkidate. Beraz zuk haiei.

– Ongi da.

Segituan, Altair barandara igo zen, gerrikoa sokara lotu zuen eta eskuen eta hanken laguntzaz bultzatuz iritsi zen. Zorionez ez zuen inork ikusi.

Bertan gerrikoa sokatik askatu zuen eta duda bakar bat gabe ere leihotik sartu zen. Itxia zegoenez hautsi egin behar izan zuen.

Han zeuden Abul eta lau soldadu, leihoak haustean ateratako zarataz aztoraturik.

– Guardiak! Akabatu! –oihukatu zuen merkatarien erregeak.

– Azkar bukatu beharko dut, gehiago etor ez daitezen. –esan zuen Altairrek lasaitasun handiz ezpata ateratzen zuen bitartean.

Zaila da deskribatzea nola garaitu zituen lau soldaduak; lehenengoa-ri ezpataz lepoan ebaki bat egin zion, hurrengoa lehenbizi saihestu egin behar izan zuen gero ezpata urdailean sartu baino lehen eta beste biak ebaki ezberdinak eginez garaitu zituen.

Laugarrenarekin amaitzen ari zenean ohartu zen Abul aterantz zuzentzen ari zela. Beraz, ezker hankako botatik daga bat atera eta bere eskuineko hankara jaurti zion.

Abul lurrera erori zen, Altairrek ezpata gorde zuen eta oinez zuzendu zitzaion. Baina orduan ohartu zen:

– Zuk! Zuk hil zenuen nire aita!

– Ez dakit zertaz ari zaren!

– Duela hamar urte, Talal Al-Hakim izeneko merkataria bat hil zenuen, nire aita!

– Jajajaja. –barre egin zuen Abulek, nahiz eta mindurik eta lurreean zegoen. –Zure aita? Zerri horrek nekazari europar familia bat hiltzean ostu zintuena? Zu bere esklaboa zinen.

– Eta zergatik hiltzen zenituen zuk merkataria?

– Irabaziak armadari emateko. Horrela armadak gure herria babestuko zuen. Gaiztoak hil zintzoak salbatzeko. Ez al duzue zuek hori egiten, justizialari? –justizialari hitza ironiaz esan zuen.

– Maisafeko kredoaren izenean nik hiltzen zaitut. –esan zuen eskularruko ganibetaz lepoan perforazio bat egiten zion bitartean, gero luma zuria hartu eta bere odolaz zikindu zuen.

Altairrek ahal izan zuen bezala alde egin zuen. Geroztik ez zen inoiz ezer jakin Altairretaz, baina lumaz bai. Behin Maisafeko liburutegian aurkitu zuten pergamino bat zuela loturik. Pergaminoak honako hau zioen:

*Agian gaiztoak ez ziren horren gaizto
eta zintzoak horren zintzo*

AMAIERA

Ipuin hau, 12.mende inguruan kokatu dut, ziurrenik errore historiko asko egin ditut eta barkamena eskatzen dut, baina aipatu nahiko nuke Maisafeko gaztelua benetan existitzen dela eta Abul Nuqoud garai hartan existitu zela eta heriotza misterioitsu bat izan zuela.



■ E. maila • 1. saria

ANDER LEON

Motel Montecarlo

Ez dakit kontatu behar dudan istoriorako izenburu hori egokia den ala ez. Seguruena ez. Azken finean gertaeraren bukaerako zatia baino ez dago Motelean kokatuta, baina beste alde batetik, oso izenburu nobeleskoa da, narrazioari indarra emango diona, eta gainera, polita gera daiteke. Zerikusirik ez edukitzeak ez du garrantzi handiegirik. Gainera ez dakit horrelako idatziek izenbururik eduki behar duten ala ez. Badaezpada jarriko diot. Kazetari sena nabaritu behar da. Kentzeko denbora badago.

Zubiondo auzoan ez da inoiz ezer gertatzen. Nire kazetari karrera osoan behin baino ez nintzen hara hurbildu eta baserri bat erre zelako izan zen. Ez dut gehiegi gogoratzen, usain bitxia besterik ez. Oraingotan larriagoa zen asuntua, baina bertara heldu nintzenean dena beti bezala zegoen, inoiz ezer gertatu izan ez balitz bezala, inoiz ezer gertatzen ez balitz bezala.

Eskenatokia mugitu gabe egoteak eta inguruko larrearen lokatzak festak bat-batean bukatu zirela adierazten zuten. Auzoaren “erdigune-

an” San Pankrazioari eskainitako parrokiaren ondoan hiru etxadi ziren eta pixka bat urrutiago erretegi-jatetxea, Buenos Aires. Garai batean igandero kanpotarrez betetzen zen izen argentinarreko lokala. Gaur egun, ordea, krisialdiak jota edo, ez zen inor agertzen. Festetan baino ez zuen ondo lan egiten.

Inork ez zekien zergatik, baino arrazonamendu guztietatik kanpo, jaiak uztailean ospatzen ziren, Karmengo Amaren ohorez. Itsasgizonen patroia baserritar auzo honetan? Agian horregatik San Pankrazioko elizaren hormetan bi aingura marraztuak ziren. Edo agian beste arrazoi batengatik, zer dakit nik! Gainera honek ez du garrantzirik narrazioan. Bai ordea airean zegoen usaina eta nik identifikatu ez nuena, baina baserria erre zeneko eguna ekarri zidan gogora. Barkatu, auzoa deskribatzen ari nintzen.

Erdigunetik kanpo baserriak daude, Lehen Sektoreko atal guztiak lantzen dituztenak, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza,... Nekazaritza biologiko bereziak ekarriko zizkidan arazoak niri. Zubiondo, beraz, ondo egituratuta zegoen, pistak on samarrak eta inguruan ur freskoa eramaten zuen erreka. Ibai beheara zubia aurki daiteke, gertu, baina ez auzoaren izenak esaten duen bezain “ondoan”. Nire informazioaren arabera, zubi hartan ziren hilketaren lehen arrastoak ikusi zituztenak. Haietako bat pelikula asko ikusitako neska gaztea zen. Epaiketa batean parte hartzeko ideia hutsak izugarri pozten zuen. Ni, herriko aldizkariko kronista ospetsuena (eta bakarra) berarengana hurbiltzea ere gustatu zitzaion. Elkarriketa egin nion, transkripzioa aspergarriegia da, baina nota batzuk jarriko ditut.

Berbenan martxan zegoela esan zidan, Patxi Etxolaberrikoarekin buelta bat ematera joana zela. Patxi ez zitzaion bereziki gustatzen, baina lagunak beste mutil batzuekin joanak zirenez, bera tonta bezala ez geratzeagatik baiezkoa eman ziola. Zubira hurbilduta ibai ertzean zerbait ikusi zuen, adar bat zela edo gerturatzean txaketa bat zela ikusi zuen. Mozkorti bati galduko zitzaiola pentsatu zuen, baina handik gutxira gorpua ikusi zuen, odolez beteta eta ikaragarritzko kolpearekin buruan. Hasieran ezagutu ez baina laster konturatu ziren On Eustakio zela, urteetan herriko medikua izandakoa eta orain erretiraturua auzoko

baserri batean apopilo bizi zena. Halako kasuetan medikuari deitzea izaten da egokiena, baina medikuaren egoera ikusita festa eremura bueltatu eta autoritateari, hau da, Jai Batzordeko presidenteari abisua eman zion. Bukatzeko hauxe neukan grabagailuan *“Hau da nik dakidan guztia eta hau da epaiketan esango dudana. Oraindik ez dut erabaki zer egingo dudana, zin egin edo hitza eman, zu kazetaria izanda epaiketa asko ikusitakoa izango zara, zer gomendatzen... (klik)”*.

Azalpen gutxi baina gutxienez badakit nork topatu zuen gorpua. Mutilari ez diot ezer galdetuko, mozkortuta zegoela esan dit eta ez dela ezertaz gogoratzen. Baldintza normaletan tonta horrekin ez zela inora joango eta hori zela bere koartadarik hoberena. Sinistu diot. Kazetariaren sena.

Historioaren orden kronologikoa segitzea erabaki dudanez, Jai Batzordearen presidentearekin egin dut zita eta bere hitzak ekarriko dizkizuet. Gizon potoloa, farias ahoan eta mina buruan. Ajea dela esaten du baina sakonagoa dela esango nuke nik. Fariasek ezohiko usaina du. Berak esan zidanari ez nion garrantzi handiegirik eman, baina lanean zegoela esan zidan.

“Badakizu, festak antolatzen beti egoten da lana. Denetik egin behar: garraiatu, muntatu, sukaldaritzan aritu, sariak banatu, jendearekin egon... Inork ez dizu eskertzen kritikak baino ez dira. Aurten Akelarre, Joselu Anaiak eta Egan ekarri ditugu eta hala ere jendea ez dago gustura. Nondik ateratzen dugun dirua? Gure bitartekoak badiugu. Jendea beti protestan... aurten tokapelotas bat dago idi-probak suspenditu behar direla esaten duena, Zubiondoko idi-probak, eskualdeko hoberenak –barkatu baina nik ez dizut hori galdetu– (Hitz hauek nireak dira, kazetariarenak, bera urduritu zen) Ah bai, medikua-rena. Txosnan nengoen eta Teresa gazteak ez dakit zer ikusi zuela esan zidan. Ez nion kasurik egin, hori da dena. Gero Maritxu Borda-berrikoa negarrez ikusteak harritu ninduen, ez negarrez egoteagatik, bazik eta festetan egoteagatik, ez da inoiz ibiltzen eta. Guk egiten dugun lanarekin...”

Urduri zirudien, baina nor ez zen egongo egoera horretan. Maritxu Borda-berrikoa zen hurrengo pausua. Tonto bezala sentitu nintzen,

lekukoek leku batetik bestera txotxongilo bezala eramango banindute bezala. Baina beste zereginik ez nuenez Bordaberrira joan nintzen. Txakur handi horren zaunkak ez hurbiltzeko gomendioa eman zidan, gertatutakoaren egia osoa jakiteko grina ez zen bizitza arriskuan jartzeko bezain handia. Jatetxera joatea deliberatu nuen, trago batek on egingo zidanaren pentsamenduarekin, Kubalibre bat hain zuzen ere. Tira, eta agian hilketaren inguruan informazioren bat lortuko nuen, baina bereziki kubalibrearengatik joan nintzela aitortu behar dut.

Tabernara sartzean isiltasuna egitea espero nuen, cowboya saloonera heltzen denean bezalaxe, baina ez zen horrela gertatu. Dagoeneko isiltasuna zen nagusi, erretegia hutsik baitzegoen. Buenos Aires ez zirudien erretegi euskaldun batentzako izenik egokiena. *“Nahi nuelako”* esan zidan jabeak izenaren jatorriaz galdetu nionean. Hasiera txarra. *“Nik gauza asko dakit, baina ez dizut ezer esango”*, *“Hoa hemendik”* eta *“Ez itzuli”* izan ziren azkeneko hitzak. Hala, gehiegi galdetzeagatik, kubalibre-rik gabe. Dena den horiek ez dira negozio bat aurrera ateratzeko modurik egokiena. Jabe zakarra, lokala zikina eta usain hori...

Ataskatuta nengoen. Ez neukan nora joaterik ezta iturri fidagarri-rik ere. Poliziarik ez zen auzotik azaldu. Gorpua eraman zuten eta kitto. Gauzak horrela, artikulu txukun bat idazteko nahiko nuela pentsatzen hasia nintzen. Narrazio bat, testigantza batzuk eta auzoa eta giroaren deskripzioa. Bukaera irekia utziko nuen, errudun eta susmagarri-rik gabekoa. Bai, hori egingo nuen. Gainera uste nuen kubalibre bat merezi nuela, beraz urdangetara joan nintzen.

Askotan bezala, Motel Montecarlora hurbildu nintzen. Inguruko eta ez hain inguruko putetxerik famatuena da. Errepide nagusiaren ondoan ondo kokatuta, teilatuko argi gorriek atzerriko kamioilarien balaztak zapaltzen dituzte gidarien oinek baino sarriago. Baserri tankera du kanpotik baina azken bolada honetan bertan bizi direnak ez dira base-ritarrak, Ukrainatik ekarritako neska puskak baizik.

Ukraniar hauek Kieveko auzo txiroen amesgaiztoetan ez zuten imajinatzen zer nolako fauna topatuko zuten beraien lantokian. Lehendik aipatutako garraiolariez gain, negozio bazkarietatik etorritako negozio gizon mozkortuak negozio egiten saiatzen, inguruko ezkongabeak

beharrak asetzera etorritakoak (ni barne) eta nire harridurarako Zubiondoko biztanle batzuk. Patxi, Jai Batzordeko lehendakaria eta Buenos Aireseko jabea. Trio Calavera. Ni ikustean urduritu ziren eta beraien artean marmaraka hasi ziren. Itxura txarra ikusi nien eta ez ikusiarena egitea zentzudunena zela erabaki nuen. Ingelera zatarrez Natasharekin ari nintzenean hurbildu zitzaizkidan.

– *Nola jakin duzu?* esan zidaten.

Ezer ez dakizunean isilik egotea izaten da komenigarria. Natashari keinu bat egin nion, pelikuletan askotan ikusten den bezala eta berak ez dakit zer esan zidan, poliglota izatearen sortea ez baitaukat eta hori zen desabantailetakoa bat. Bigarren kubalibrea eskatu eta entzutearen papera egin nuen. Azalpenekin hasi ziren.

– *Kabroi bat zen!* Esan zuen batek

– *Bai, zeukan guztia gurea zen, gertatutakoa merezi zuen!* Besteak

Niri begira zegoen hirugarrena. Ni berari ere bai, beldurra ahalik eta hoberen disimulatzen. Azalpenak bata bestearen atzetik. Inori ez zitzaion arraro iruditu medikua erretiratu ostean Zubiondo bezalako auzo batera bizitzera joan izana, ezta azken urteetan nekazaritzari eskainitako denbora ere. Ezta erretegiaren emandako orduak ere. Zubiondotik kanpoko inork ez zekien ordea, erretegiaren haragia erretzeaz gain, beste gauza batzuk erretzen zirela.

– *Noski, zu bezalako kazetari batek segituan nabaritutako zuen marihuana usaina.*

Ni harrituta eta isilik, batez ere zer esanik ez nuelako. Baina argia piztu zitzaidan eta esaldi bat ondo geratuko zela iruditu zitzaidan eta askotan pestatu gabe bota nuen.

– *Kazetariaren sena...*

Antza denez On Eustaquio eta Maritxu Bordaberrikoa, maitaleak biak, ihes egiteko momentuan harrapatu zituzten, urte osoko diru etekinekin eta festetako taldeak ordaintzekoarekin. Haserrea, borroka, gaizki emandako kolpeak.... Gorpua uretara eta denok festara. Ez harritzeko, auzo guztiak marihuanarena zekiela, baita polizia ere. Nola

disimulatu bestela biltegi bezala erabiltzen zuten baserria erre zenean bertatik sortutako usaina. Bueno, batek ez zekien, Teresa hori, hori zen inuzente bakarra.

– *Ah bai.. esan nuen nik, hori susmatzen nuen, baina dena idatzita daukat eta niri zerbait gertatuz gero notario batek eramango du dena poliziara...*

– *Ixo, tontolapiko urdangazale hori, ez dizugu ezer egingo. Medikurena istripu bat izan zen, eta Maritxurena ere bai.*

Dios!, Beste krimen bat eta nik ezer jakin gabe!! Zer guapo nagoen ixilik. Natasha bilatu nuen begiradarekin baina geletarako bidean zihoan kamiolari portuges batekin. Nire bizitza osoa minutu batean pasatzen ikusi nuen kubalibrearen azken tragoa dastatzean begiak itxi nitue-nean. Hilda nago. Akatuko naute.

Orduan egin zidaten espero ez nuen eskaintza. 6.000 euro isilik egoteagatik eta beraiek negozioan segitzen uzteagatik. Nik ofenditua-rena egin nuen, kazetari baten duintasuna ez dago salgai, ez behintzat 6.000 eurotan. Pixka bat negoziatu eta gero, nire duintasunak 20.000 euro balio duela erabaki nuen. Gastu asko ditut, bizio asko. Motel Montecarlora erakartzen nauena, esate baterako. Eta kubalibreak. Eta eman zizkidaten 20.000 euroak bertan, Urbileko poltsa honetan, gehiago hitz egin gabe, eta horregatik ditut, ez misterioa argitu nuela-ko, urdangetara Motel Montecarlora joan nintzelako.

Agian titulua ez da hain desagokia. Motelak berebiziko garrantzia du istorioan. Ez dakit, agian utziko dut. Ez dakidana da honelako deklarazioetan izenburua jarri behar den ala ez. Nik jarriko diot eta gero ezin bada edo egokiago ikusiz gero, nire abokatuak edo epaile jaunak kende-duko dute. Total, beste zereginik ez daukat hemen barruan.

Martuteneko espetxean, 2009ko azaroan



■ E. maila • 2. saria

OSKAR OTERMIN

Bidaieko bakarriketak

Azkenean igo gara autobusera eta bagoaz dagoeneko horren eza-gun zaigun bidean zehar, zuek hilero ikusi ahal izateko derrigor egin behar izaten dugun bidaia hau hastera. Nahiago nuke nire ondoan bazeunde, horrela ez nuke egun honi itxaron beharrik izango, ez legoke bidai gogor hau egin beharrik zu ikusi ahal izateko. Baina, herria maite zenuen, gehiegi maite zenuen agian, zure herriak eskaintzen zizkizun eta zuk horrenbestetan zapalduko mendiak, mila aldiz bisitaturiko basoak, horrenbestetan miretsitako txorien kantua... baina, batez ere, euskara zenuen maite. Kartzela barruan lehen arrotz zitzaizun hizkuntza bat entzutera eta hizkuntza horretan hitz egitera derrigortu ondoren, euskara entzun eta hitz egiten duzun bakoitzean negar malkoak irten arte maite duzu oraindik ere.

Guzti horrengatik hasi zinen herriaren alde borrokan, gehiegizko grinaz gerora aitortu didazun bezala, eta horrek eraman zintuen borroka armatura. Guzti haren ondorioz 11 urte daramatzazu kartzelan sartuta, eta beste horrenbeste eta gehiago falta zaizkizu zulo ilun horretatik irtekeko.

Kanpoko eguzkia egunean bi orduz bakarrik ikus dezakezu, patiora ateratzen uzten zaituzten bakoitzean, bestela zure zigor- gelako leiho txikitik sartzen diren eguzki izpi bakanak baino ezin dituzularik ikusi. Leihotik begiratzuz gero mendiren bat ere ikus omen dezakezu urrunean elurturik, baina, zure esanetan, guzti horrek ez omen zaitu Euskal Herriko paisaiak bezainbat liluratzen. Gainera, txorien kantu goxoak ere ezin izaten dira iritsi zu ezkutatu zintuzten leku urrun horretara, bihotza gozatu ahal izateko behinik behin, eta askotan galdetu izan didazu bertako txoriek ez ote duten inoiz kantatzen edo beraiek ere kartzela horretan sartzeko beldur ote diren.

Behin baino gehiagotan aipatu didazun bezala, horren gustuko zenituen gauza asko faltan botatzen bait dituzu Euskal Herritik, baina batez ere horrenbeste maite zaituzten etxeak eta lagunak egunerokotasunaz ikusi eta haiekin hitz egin ahal izatea botatzen omen duzu faltan.

Beste askotan ikusi izan ditudan pertsona berdinak doaz gaur ere nire inguruan autobus honetan, beste askotan inguratu nauten begi nekatu berdinak. Euren artean nire ondoan doa askotan bidailagun izan dudana amonatzoa. Aspalditik ezagutzen dut, agian errepide hau ezagutzen dudana garai berdintsutik. Autobus honetan norako berdina eginez eza-gutu genuen elkar. Bere semeak 23 urte daramatza Espainiako kartzela desberdinetan giltzaperaturik. Bizitzaren erdia baino gehiago darama bere amak semearekin hitz egin ahal izateko hilero- hilero autobusez kartzela desberdin horietara bidaiatzen, udarako egun eguzkitsu eta beroetan ere, jende askok opor lekutzat dituen herrietara oporretara pozik doan jendearekin batera gogogabeturik bidaia bera eginez. Baina gu ez gara inoiz oporretara joaten, ez behintzat toki horietara, guretzat ez baitira opor lekuak, leku mingarriak baizik.

Bere semea gutxi ezagutzen duzula esan izan didazu batzuetan, kartzelariak ahal duten guztietan, ordu desberdinetan ateratzen omen zaituztete patiora eta euskal presoek horrela gogorragoa egingo zaizuela-koan berez ere luzea den bertako egonaldia.

Azken urteetan, berarekin hitz egin izan dudana bakoitzean, “laster askatuko dute, laster askatuko dute” errepikatzen dit behin eta berriz amonatzeko honek, begietan ilusioa duela, bere semeak 23 urteren ondo-

ren zigorra laster beteko duela eta ondorioz laster askatu beharko dute-lakoan. Baina, hurrengo aldiz ikusten dudanean ere, autobus honetan izaten da eta berriz ere berdina errepikatu behar izaten dit. Kartzelatik kanpo dagoen edonorentzat nahiz eta konturatu gabe pasa direla iruditu, luze joaten diren 23 urtez, bizitzaren erdia kartzelan daraman semea kalean ikusteko ametsak begietako dirdirari bizirik eusten diola. Hala eta guztiz ere, tamalez, bere semeak zure moduan, ezin izango ditu kartzelan pasa behar izan duen denboran, bere adineko jendeak egin ahal izan dituen gauzak egin. Gainera, berak barruan pasa duen denboran, lagun-
nen gehienak ezkondu eta seme-alabak eduki dituztela dagoeneko aipatu izan dit noizbait. Zure lagun gehienak, nahiz eta bik bakarrik izan duten umerik denbora tarte honetan, gehiago dira ezkondu direnak dagoeneko eta oraindik ezkongabe dauden batzuk, laster ezkontzekotan dira. Batzuk ezkondu ondoren ahaztu egin dituzte borroka egun urrunak, beste batzuek ordea, berdin jarraitzen dute, presoan aldeko elkarretaratzeetara joanez, orain zuen argazkiak azaldu ezinik, baino preso guztien argazki eta izenak oroimenean dituztela. Eta bereziki zure argazkia bihotzean gordeta, euretako inork ez baitzaitu inoiz ahaztu, eta oraindik ere zuen itzulera eskatzen jarraitzen dute.

Berriz ere amonatzeari begira jarri naiz eta askotan pentsatu izan dut zein mantso pasa daitekeen denbora zerbaiten zain zaudenean. Luzee-
giak egin zaizkio ziurrenik semea kalean ikusteko desioz bete dituen azken 23 urteak, (niri ere tamalez luzeak egin zaizkidan 11 urteak beza-
la) berarekin hileroko 50 minutuko bisitetan baino ezin hitz eginez, hiz-
ketaldi horietarako bidaietan bere semea nola ikusiko duen denbora guztian pentsatuz, semea elkarriketa gelara sartzen ikusi bezain laster malko bati ihes egiten utziz, nahiz eta bidaian zehar oraingoan ez duela negarrik egingo zin egiten dion bere buruari...

Bada hala eta guztiz ere denbora azkar igarotzen dela pentsarazten didan beste pertsona bat ere nire inguruan. Bere amaren ondoan eseri ohi da nire aurrean askotan. Duela zortzi urte ezagutu nuen eta garai hartan bost urte baino ez zituen mutiko bat da, denbora guztian bere amaren eskutik helduta begirada izutuarekin joan ohi zena. Garai har-
tan ez zuen ulertzen zergatik bere aitarekin hitz egin ahal izateko bidaia luze hau egin behar ote zuen.

Orain ordea hamahiru urte ditu eta dagoeneko ez da izaturik joaten bere aitarekin hitz egin ahal izatera. Jada ez du bidai hau bere amaren eskutik izaturik egiten. Badaki zergatik sartu zuten bere aita kartzelan eta horregatik ia beti, harrotasun osoz Euskal Presoak Euskal Herrira dioen kamiseta bat eraman ohi du soinean.

Maiz oroitzen naiz duela hiru urte esan zenidanaz. Beste askotan bezala, ni begi tristeekin nentorren pena ematen baitzidan zu barruko elkarriketa gela honetan bakarrik ikusi ahal izateak, eta halaxe esan nizun begirada hori zergatik nuen galdetu zenidanean. Zure erantzuna, nik espero ez bezalakoa izan zen. Kartzelako bakarriketa behartu luze horietan zehar, luzaroan egon zinela gure artekoari buruz pentsatzen eta nik nahi izanez gero, aske nintzela beste pertsona baten besoetan nire bizitza berreraikitzeke, haren bihotzean beste kabi sendoago bat egiteko, horrela nire bizitzak beste zentzu bat izango zuela eta. Baina, mesedez, ez nedila inoiz zutaz ahaztu, preso batentzat ez baitago ahanztura baino okerragorik. Beraz gogoratzen direla jakitea bait dute presondegiko bakardadeari aurre egiteko kemena ematen dien arrazoi bakarra eta bakarrik sentitzeak eta beraz ahaztu direla jakitean, kartzelako bakardade jasanezinak gain hartzen baitie.

Baina nik zu bakarrik maitatzen jarraitzen dut. Noski ez dudala sentitzen lehenengo egunean bezalakorik, sentimenduak aldatu egin dira, denborarekin maitasunak eboluzionatu egiten baitu eta beste modu batetara maitatzen ikasten baita. Baina, ziur daukat lehenengo egunean bezainbat maite zaitudala, zu bakarrik maitatzen jarraituko dudala eta inolaz ere ezingo zarela bakarrik sentitu, zure famili osoak ere ezingo duen bezalaxe, ezingo naizela sekula ere zutaz ahaztu ziur baitut. Modu berean ziur naiz zu ere ezingo zarela nitaz ahaztu, ni ere zure ahanzturaren zulo beltzean erori naitekeela jakiteak izutzen bainau, zure maitasunik gabe gelditzeko beldur naiz eta.

Behin, zu atxilotu zintuzten goiz madarikatu hura baino egun batzuk lehenago, maitasunez eta erromantizismoz josi genuen gau batean, esan zenidan ez zenekiela zer egin ote zenezakeen nire maitasunik gabe, eta asko zirela maitasunarengatik eroturikoak eta ez zirela ere gutxi maitearen faltarengatik edo maitearen esperoan hil zirenak.

Barruan zaudenetik espero dut nire maitasunaren falta ez sentitu izana, beti zugandik gertu egoten saiatu bait naiz, oraindik ere zugatik sentitzen dudana zuri erakutsi ahal izateko.

Orain, heriotzan pentsatzen ari naizela, ezta ere ez dira gutxi izan bidaia honetan edo antzekoetan, maitearekin, senitarteko batekin edo lagun batekin ilusioz beterik ustez edukiko duten hizketaldirako bidaian hil direnak. Gutxi ez diren bezala Espainiako edo Frantziako errepideetan isuri diren ametsak, anitz dira ere bide hauetan zehar itzalitako ilusiozko begiradak.

Askotan pentsatzen dut guzti horretan. Behin zure arrebari gertatu zitzaion istripu hura burura etortzen zaidan bakoitzean, ziur zuk ere egunean behin baino gehiagotan gogoratzen duzula, nahiz eta bisitaldietan ez duzun horrelako gauzez hitz egin nahi izaten. Autoz zihoan zu bisitatzeraz zeunden urruneko kartzela hartara. Istripu hartan zure arreba zauri larriak izan zituen arren, onera egin zuen eta zorionez zuri bisita egitera joaterik badu aldia behin. Ezin esan dezakete ordea berdina, zure arreba zihoan auto hura gidatzen zuen eta bere neska laguna bisitatzeraz zihoan mutilaren senideek. Nahiz eta anbulantzia joan zirenak saiatu ziren hil ez zedin, bertan zendu baitzen. Zuk ezagutzen zenuen mutil hura, txikitatik ikastola berera joaten zinaten eta oso lagunak omen zinaten gainera. Negarrez pasa zenituen egun asko, negarrez lagun on bat galdu izanagatik, negarrez nahiz eta zure arreba ere berarekin zihoalako, negarrez istripua zuei bisita egitera zihoazela gertatu zelako, negarrez urruntasunarengatik... horrenbeste arrazoi izan zenituen negar egiteko non gau asko ito zenituen negarretan, negar malkoak agortu zitzaizkizun arte.

Bakarriketa hauetan nengoela, iritsi gara kartzela bakarti honetara. Eta arrazoia duzula iruditzen zait: hemen haizearen hotsa besterik ez baitut entzuten, eta txoriek inguru honetatik ihes egin dutela ematen baitu.

Barnera sartzen utzi gaituztenean, arakatu egin gaituzte sarreran. Gu urduri jar gaitezen nahi dute ziurrenik, gure intimitatea bortxatuaz ziurrenik zuena egunerokotasunez bortxatzen duten bezala. Baina aspaldi utzi genion barruko eta kanpoko gauza txarrei buruz hitz egite-

ari, bisitaldi motz hauek bestearentzat oraindik gogorrangoak egin ez daitezen, behin baino gehiagotan gertatu bait zaigu negarrez hastea bisitaldi hauen gela txiki honetan.

Zurekin hitz egiteko garaia heldu da, azkenean, eta euskaraz hitz egin hasi gara zaintzaileen gorrotozko begiradapean. Maitasun hitzak elkartu ditugu, familiak ere oso gogoan zaituela gogoratu dizut ez zaitezen bakarrik sentitu kartzelako bakardadean. Herria nola dagoen aipatu dizut eta zuk berriz espetxeko kontuak kontatu dizkidazu, zaindariak denbora amaitu dela esan eta berriz ere ziegara eraman zaituen arte. Beti bezain alferrikakoak izan dira denbora gehiago uzteko egin dizkiogun eskeak eta eraman egin zaitu. Nik, berriz, aulkitik altxa eta kalerako bidea hartu dut.

Ongi etorri hitzak pentsatu nahi nituzke zuri eskaintzeko. Baina, zoritarrez, hurrengo batera arte bat esaten baino ez didate uzten. Bitartean guk desiraturiko eguna noiz iritsiko zain gaudela, amets egiten jarraitzen dugu zuen eta herriaren askatasuna kolorez margotuko dugun egunsentiarekin.

Zu ikusten zaitudan bakoitzean, denboran aurrera egin dugula derri-gorreetan konturatu behar izaten dut eta, bisitaldia amaitzean, komunera joan behar izaten dut nire burua ispiluan begiratzera, niretzat ere denborak aurrera egin duela ohartzeko, nik ere gaztetasuna atzean utzia dudala ia onartu behar izateko, eta nire gaztetasun horren zati handi bat zuri itxaroten igaro dudala jabetzeko.

Zergatik ez dago denborari aurre egiterik? Denboran aurrera edo atzera bidaiatzerik? Edo, bestela, zergatik ezin dugu denbora bera gelditu? Galdetu nahi nizuke, eta ez naiz orain arte ausartu zuri galdetzerara, aukera izango bazenu zer aldatuko ote zenukeen zure bizitzan gertaturiko gauza guzti horietan. Nik, behintzat, ez nuke ezer ere aldatuko nire bizitzan, polizia zure etxean sartu eta espetxera eraman zintuen momentutik honako guztia izan ezik, eta soilik gu biok elkar maitatuz igaro genituen egun horietako batetan geldituko nuke denbora, iragenera bidaiatu eta bertako uneren batetan denbora geratzerik izango banu: goizeko ordu txikiak arte izarrei begira eta inoiz amaituko ez genuela jakinik, erdi barreka izarrek kontatzen pasatako gau hartan,

edo bestela elkarrekin ateratzen aste gutxi batzuk bakarrik generamatzala, parrandan ibili ondoren nire etxera lagundu nahi zenidanaren aitzakia jarri ondoren, portalean musuka jan nahi ninduzula esanaz nire etxera joaten uzten ez zenidan gau hartan. Beno, egia esan nik ere ez nuen inongo gogorik etxera joateko eta betirako geratuko nintzen zurekin batak bestea musuka jan nahian, nire bizilagun bat lanerako bidean agertu izan ez balitz. Bi nerabe izango bagina bezala ezkutatzer a ihes egin genuen bera ohartzerako eta joan zela konturatu ginenean, barrez hasi ginen sustoaren erruz maitasun musuak alde batetara utzirik.

Ordutik beste hiru aldiz saiatu zinen jokaldi bera egiten, baina nik zer gerta zitekeen jakinda, eta ordurako oso nekatuta nengoenez, ezezkoa eman izan nizun gure koadrilako neska bat nire etxe inguruan bizi zela eta berarekin joango nintzenaren aitzakia jarriaz beti ere. Baina, behin ni oso nekatuta egon ez eta zurekin musuak partekatzeko berriz oso gogotsu nengoela, utzi nizun nire etxerako bidea elkarrekin berriketan egin genezan. Oraingoan orde, aurreko aldian gertatu zenarekin ikasirik, ez ginen nire portal aurrean geratu, inguruan dagoen parke batetan baizik, bertan elkarri musuka igaro genuen denbora, ohartzerako eguzkia egunon esanez etxera joateko ordua zela oroitzera azaldu zen arte. Orduan bakarrik askatu ginen bakoitza bere etxera joan ahal izateko. Eskerrak oraindik nahikoa goiz zen eta ez zegoen inor jaikita nire etxean horren berandu joatearen kontu eske hasteko!!

Hori guztia zu atxilotu baino bi urte lehenago gertatu zen, eta nahiz eta hamarkada luze bat igaro den ordutik, atzo gertatu balitz bezala gogoratzen dut. Agian garai hartan egin genituen gauza guzti horienatik jarraitzen zaitut horrenbeste maitatzen, agian egiterik izan ez genituen gauzengatik jarraitzen dut zu atxilotu zintuzten egun madarikatu hura gorrotatzen.

Orain, hemendik ateratzean, Euskal Herrirako bueltako bidaiari ekingo diogu, zoritxarrez zuek horrenbeste maitatzeagatik eta dispertsio madarikatu horren erruz, denbora askoan zehar zapaldu ezingo duzun herri horretara itzultzeko, eta nire alboko amonatxoak, ezin izan du ekidin bisitaldian zehar negar malko bat atera zekion begietatik eta autobusean lehen negar malko soil bat zena, negar isuri batetan bihurtuko

zaio harik eta bere semea laster askatuko dutenaz bere burua konben-
titztea lortu arte. Aurreko mutikoak, ordea, harrotasun handiagoz era-
mango du nikia eta kemen handiagoz oihukatuko du EUSKAL PRE-
SOAK EUSKAL HERRIRA. Nik, berriz ere, nire inguruan dudan
jendeaz gain zurekiko gogoetak izango ditut bidai-lagun itzulerako
bidaian, lehen ere esan dudan bezala zu inoiz ez ahazteko.